



Itsasoar guztioi adeitasunez,

Jarraian, 2019ko urriaren 27an Alegian burutako HERRI BATZARREKO AKTA jasotzen da.

1.- Azken Batzarretik honakoak

- Itsaso 2030

Siadeco taldearekin batera burutzen ari garen prozesuan orain artean landu diren ardatz nagusiak eta hauen faseak birgogoratu dira (ekaineko Herri Batzarrean aipatuak) :

- I. fasea: Zer gara? Gure balioak eta egungo egoera.
Zer hartu behar dugu kontutan? Etorkizuna planifikatzeko tresnak*
- II. fasea: Zer izan nahi dugu? Norabide estrategikoak
Zein bide egingo dugu? Plangintzaren oinarriak ezarri*
- III. fasea: Plangintza eta ezaugarriak*
 - A) Bisioa, norabide estrategikoa*
 - B) Arloak, erronkak eta herri-egitasmoaren printzipioak*
 - C) 2020-2030 jarduera plana*
 - . lehentasun irizpideak*
 - . arlo eta lehentasunen arabera helburuak, ekintzak, proiektuak eta proposamenak*
 - . aurrekontuen, epeen eta eragileen arabera exekuzio-plana 2020-2030*
 - D) Jarraipen eta ebaluazio irizpideak*

Siadecok herritarren 113 inkesta jaso ondoren, 41 bizilagunek batzordetan parte-hartzeko asmoa agertu zuten eta 3 lantalde ari dira lanean.



Hirigintza eta Etxebizitza



Enplegua eta Tokiko ekonomia



Herri bizitza

Gazteen lantaldea, bitan banaturik, 10-16 urte bitartekoekin eta 16-30 urte bitartekoekin, oraindik ez da martxan jarri baina **berariaz abenduan egingo den batzarren** aurretik abiatuko da. Batzarrean orain arte planteatu diren beharrei irtenbide bideragarri eta estrategikoki garrantzitsu jotzen diren proposamenak luzatuko dira.

- Herriko produktuen katalogoa

Osasun Sailaren laguntzarekin, Herrian ekoizten diren produktuen proiektua jarri da martxan. Helburuen artean, bertako produktua ezagutaraztea, elikagai osasungarriak kontsumitzea eta ekoiztea... Egin den katalogoa etxe bakoitzera banatuko denez, bertaratutakoei eman egin zaie. Ondorengo lotura honetan ere ikus daiteke:

<http://www.itsaso.eus/eu/herriko-produktuak>

- Ur kontsurtzioak herriko sei gunetan egindako konponketak

Ur Kontsurtzioak 60.000€-ko inbertsioa egin du guztira herriko sei gunetan: Goitti, Ori, Egiluze, Atinzabal, Beiti, Atsusain eta Itsaskanen.

- Zaborraren kudeaketa: papera eta kartoiaren prezioa 7 aldiz jaitsi delako Udalak duen defasea %30 da. Hala ere, dena batera ez igotzearren, 2020rako %10eko igoera aurreikusten da, sarrerak eta gastuak orekatzen joateko poliki poliki. Hilean 30,93€ ordaintzetik 33,04€ ordaintzera pasatuko gara.

- Itsaso auziak

- 2016ko kontsultarengatik: aldeko sententzia Euskadiko Auzitegi Nagusian
- 2017ko otsailean Madrilgo Inskripzioaren ukapenagatik: kontrako sententzia Madrilgo Auzitegi Nagusian. Gorenean ebatziko da.
- 2016ko Foru Dekretuagatik aldeko sententzia Euskadiko Auzitegi Nagusiak. Estatuko abokatuak errekurrituta, Gorenean ebatziko da. Hau da garrantzitsuena eta itxura batera hurrengo hilabeteetan ebatziko da.

- Udaletxeko proiektua: Leader 2018 proiektuaren 2. fasea (ganbara eta teilatua)

- Behin betiko proiektua azaroan
- Ganbara berritu, egurraren gainean hormigoia jarritz
- Teilatuan dagoen egurra mantendu
- Eskailera berria egin eta "salvaescaleras" jarri, irisgarritasun bermea izan dezan
- Espazio irekia hainbat ekintza, ikastaro, erakusketa,... burutzeko eta bulegoak egiteko ere aukera

Aurreikusitako gastuak		Aurreikusitako sarrerak		
Obra	305,465.86	Irisgarritasuna 2018	22,166.22	
Honorarios aurreikuspena (Leader 2018)	18000	Leader 2018	96,430.55	
Tecnalia	14000	Irisgarritasuna 2019	27,951.88	Eskatuta, oraindik ebatzi gabe
		Redesa	66,493.00	
Guztira	337,465.86	Guztira	213,041.65	
Udalaren ekarpena:	124,424.21			

2.- Azpiegitura proiektuak Alegian

- Frontoiko argiteria berria: EVE diru-laguntza

Orain arte jarri diren txanpon makinak puskatu egin dituzte eta orain pultadorearekin jarriko da argia, ordutegi mugatuarekin. 700€ inguruko diru-laguntza jaso da horretarako. Obraren kostua 5.400€ da.

- Bide berdea Alegia-Uribar

Itxiturak berritu dira eta hesi zahar gehienak kendu, bidearen alboetan zangak eta uren irteerak egin dira eta asfaltoa bota da (Orsa enpresak egin berri du, 35.000€). Auzolanean erreka garbitu da eta mahaiaren kokagunea eta presa ondoko iturriarena finkatu dira.

- Alegiako bulebarizazio proiektua

Bulebarizazio proiektu honek bere barnean hartuko ditu falta diren saneamendu hoditeria guztia eta euri uren bereizketa ere. Horretarako koordinazio lana egingo da Aldundiko Errepide Sailari dagozkion errepideko plubialak zuzendu ditzan, Ur kontsortzioak ur-zikinen inguruan egindako proiektua, Udalak bere teknikariek errepidea eta plaza asfalto inpresoz diseinatutakoa. Hau guztia Leader 2019 deialdira aurkeztu da diru-laguntza jasotzeko. Guztiaren aurrekontua 161.425€. Bilera batera deituko da batez ere plazaren diseinua lantzeko

3.- Norberak lekarkeena

- Ariketa fisikoa egiteko tramankuluak: Frontoiarene ondoan, parkearen segidan jartzea lehenetsi da

- Zubia: Uribar aldera Epelde erreka zeharkatu ahal izateko, zubia nolabait egitea eskatzen da.

memoria PROYECTO DE BOULEVARIZACIÓN DEL BARRIO ALEGI DE ITSASO		
3.- Resumen de presupuesto		
001	DEMOLICIONES Y MOVIMIENTO DE TIERRAS	30.520,54 €
002	PAVIMENTACIÓN Y ALBAÑILERÍA	55.179,96 €
003	SANEAMIENTO	29.912,47 €
004	SEÑALIZACIÓN	1.328,44 €
	TOTAL EJECUCIÓN MATERIAL	116.941,41 €
	19% GG + BI	22.218,87
	TOTAL PRESUPUESTO CONTRATA	136.160,27 €
	16% IVA.....	22.265,64
	TOTAL PRESUPUESTO GENERAL	161.425,91 €
Asciende el presupuesto general a la expresada cantidad de CIENTO SESENTA Y UN MIL CUATROCIENTOS VEINTICINCO EUROS con NOVENTA Y UN CÉNTIMOS		

Itsasoko Udal Batzordea

Itsason 2019ko urriaren 27an

